




irizpideak eta helburuak

Mungiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra



MUNGIA
UDALA

TERRITORIO  CIUDAD SLP
TAPER

Aurkibidea

- 1. IRIZPIDE ETA BERARIAZKO PRINTZPIOAK**
- 2. MUNGIAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLANEAN UDALERRI
IRAUNKOR ETA ERRESILIENTE BATEN PROIEKTUA
SUSTATZEKO HELBURUAK**

MUNGIAKO HAPO-RAKO IRIZPIDE ETA HELBURUAK

I. IRIZPIDE ETA BERARIAZKO PRINTZPIOAK

Mungiaiko indarreko plangintza orokorra onartu eta indarrean sartu zenetik 25 urte baino gehiago igaro dira. Denbora honetan, plangintza hau egiteko oinarri izan zen errealitate ekonomikoa eta soziala aldatzeaz gain, lurraldearen antolamendurako eta hirigintzarako politiken erreferentziazko esparru juridikoa ere aldatu da. Erreferentzia-esparru hori erabakigarria da plan orokor baten konfigurazio formalerako ez ezik, benazko edukirako ere.

Euskadiko hirigintza-plangintzarako irizpide berrien aurrean gaude, eta irizpide horiek erreferentetzat hartu behar dira helburuak finkatzerakoan.

Adibidez. Euskadiko egungo hirigintza-legediak, **Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, udal-plan orokorretarako helburu orokorren egitura berria eratzen du**, honako hauek:

1. **Udalerriaren ingurumen-jasangarritasuna hobetzea**, ur- eta energia-baliabide berriztagarrien kontsumoak ekosistemek horiek birjartzeko duten ahalmena gaindi ez dezan, eta baliabide berriztaezinen kontsumo-erritmoak baliabide berriztagarri iraunkorren ordezkapen-erritmoa gaindi ez dezan, eta, era berean, kutsatzaileen emisio-erritmoak aireak, urak eta lurzorua horiek xurgatzeko eta prozesatzeko duten gaitasuna gaindi ez dezan. Eta, horretarako, hirigintza-antolamenduak energia berriztagarrien erabilera eta aprobetxamendua, energia-eraginkortasuna, hondakinen ekoizpenaren minimizazioa eta hiri-sistemetan baliabide naturalen aurrezpena sustatzea bilatzen du.
2. **Lurzoruaren berezko baliabide naturalak babestea**, bai ekoizpen-balioengatik, bai hirigintza-garapen jasangarriko tokiko estrategiarako erreferentzia izategatik.
3. **Lurzoruaren okupazio iraunkorra, lurzoria birgaitzea eta berrerabiltzea aurreikusten duena**, bai eta etxebizitza hutsak erabiltzea ere, hazkunde berriaren aurreko lehentasuneko aukera gisa, hiri-bereizketa eta -sakabanatzea saihestuz, lurraldearen lehen mailako funtzioari eustea ahalbidetzeko, hiriguneen, landaguneen eta naturaguneen ingurumen- balioak babesteko oinarri gisa, eta erabilera edo jardura desberdinen integrazio eta kohesio espazial egokia ahalbidetzeko, mugikortasunaren sorrera murrizte aldera.
4. **Birgaitzearen bidezko eraikuntza jasangarria**, herriko jatorrizko guneetan **eraikitako** eta urbanizatutako **ondarea berroneratzeari** eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeari **lehentasuna emanez**.
5. **Mugikortasun iraunkorra**, ibilgailu motordunen erabilera behartua eta beharrezkoa ez dena murriztera bideratua, ingurumena errespetatzen duten garraio bideei lehentasuna emanez, erabilera konbinatua planifikatuz.

Alde batetik, **Euskadiko 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerro** berriek, espazioaren antolamenduari eta erabilerari dagokionez zuzenean eta zeharka aplikatzeko gidalerro ugari zehazten dituztenak hirigintza-plangintzarako, eta dokumentu honetako beste apartatu batzuetan aipatu direnak, erregistroa aldatu dute 1997ko LAGei dagokienez; izan ere, LAG haiek hazkunde helburu gisa planteatzen zuten lurralde-ereduaren proiektu bat beren gain hartzen zuten, azpiegiturretan eta hiri-eraldaketa inbertsio handia egiteko aurreikuspenekin. Erregistro- aldaketa hori ez da artifizia, baizik eta **testuinguruaren azterketa batean oinarritzen da, bai lurralde-plangintzari dagokionez, bai gizarte-, ekonomia- eta lurralde-esparruari dagokionez**: lurraldeari dagokionez, orografia

gorabeheratsuarekin, populazioa trinko finkatuta baitago, batez ere Kantauri isurialdean; **biztanleria-geldialdia eta zahartzea aurreikusten dira, eta horrek mendekotasun-tasa handitzea ekarriko du; industriaren tertziarizazioak eta energia berriztagarrien tasa handitzeko beharrak inbertsio handiagoa eskatuko du I+Gan. Testuinguru horretan, gainera, klima-aldaketaren erronka aurkezten da, lurraldearen, biztanleriaren, natura-ingurunearen eta jarduera ekonomikoen gaineko inpaktuak areagotuko dituen, batez ere itsasoaren mailaren igoerari, prezipitazioen erregimenean eta tenperaturaren, uholdeetan eta bero-boladetan izandako aldaketari dagokionez. Horrek guztiak eskatzen du lurralde ez hain kaltebera eta erresilienteagoa izatea, horiei aurre egiteko gai dena.**

Hirigintza-plangintzan eragin berezia duten gidalerroak, espazioaren antolamenduari eta erabilerari dagokionez zuzenean edo zeharka aplikatzekoak direlako, honako hauei buruzkoak dira funtsean:

1. Ingurune fisikoaren antolamendua, LAGek ingurune fisikoaren elementu eta prozesuei eta jardueren kontrolari buruz ezarritakoa hartu behar duena.
2. Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuen balioa ingurune fisikoaren antolamenduan sartzea.
3. Hiri-berroneratzearen arloan.
4. Hiri-hazkundearen gehieneko perimetroa mugatzea.
5. Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetara bideratutako lurzoruei buruzkoa.
6. Bizitegi-kuantifikazio maximoari dagokionez.
7. Udalerri mugakideen plangintzak bateragarri egiteari buruzkoa.
8. Uraren eta energiaren arloan.
9. Ekonomia zirkularraren arloan: hondakinen kudeaketa, eta lurzorua baliabide gisa.
10. Lurraldean eragina duten zeharkako gaiei dagokionez: irisgarritasun unibertsala, genero- ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-harremana.

Beste alde batetik, **lurralde-estrategia berriaren oinarriak bat datoz Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartutako “Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan”,** Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetan eta Quiton onartutako “Hiri Agenda Berria (HABITAT III)” izenekoan identifikatutako lurralde-erronkekin, bai eta “Europar Batasunaren 2020ko Lurralde Agenda. Amsterdameko Ituna” deritzanean identifikatutakoekin ere; **eta lurralde-estrategia jasangarri, inklusibo, bizi, adimentsu, orekatu, elkarri lotua eta parte-hartzailea izateko ikuspegia duen lurraldea edo lurralde-antolamenduko politika bat proiektatzen dute.**

Eta, azkenik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren agindu bidez onartutako **Euskadiko Hiri Agenda - Bultzatu 2050** aipatu behar da, zeinaren helburu orokorra hirirako eskubidea baliatzeko baldintzak bermatzea baita, trantsizio ekonomiko, sozial, ingurumeneko eta teknologikoko testuinguru batean. Hirirako eskubideak hiri-espazioaren kalitatearen aldeko apustua egiten du, osotasun integral gisa ulertuta, eta bertan bizi, lan egin, gozatu eta elkarrekin bizi dira. Eta, horretarako, **8 lehentasun estrategiko zehazten ditu, 31 esku-hartze ardatzetan eta 105 jarduera-ildotan antolatuta.** Lehentasun horiekin batera, zeharkako 5 dimentsio daude, agendaren maila anitzeko gobernantzarekin, genero-ikuspegiarekin, jardueren osotasunarekin, lurraldearen ikuspegiarekin eta jarraipenaren eta ebaluazioaren aldeko apustuarekin lotuta.

HAUEK DIRA 8 LEHENTASUN ESTRATEGIKOAK:

1. Etxebizitzarako eskubidea eta oinarrizko ekipamenduak sustatzea. Gizarte-kohesiorako zuzkiduren beharra.



- Hiri-berroneratzearen eta hiriguneen dentsifikazioaren aldeko apustua egitea, eraikuntza berrien garapenaren aurrean.
- Lehendik dagoen etxebizitza-parkea egokitu eta dibertsifikatzea, herritarren biztanleria- eta gizarte-beharrak asetzeko, lurralde-eremu berean erabilera mistoa sustatuz.
- Errentamendu-merkatuaren eta etxebizitza erabiltzeko, eskuratzeko eta kudeatzeko formula berrien aldeko apustua: co-housing, alderantzizko hipotekak, etab.
- Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko programak ezartzea pertsona eta familia zaurgarrientzat, segregazio espaziala saihestuz.
- Lurralderako oinarrizko gutxieneko zerbitzu eta ekipamenduak ezartzea.
- Davos 2018 adierazpenaren arabera, kalitate handiko espazio eraiki bat sustatzea, bereziki eraikitako ingurunearen kalitate arkitektonikoari erreferentzia eginez, bai kulturaren ikuspegitik, bai bizitokien ikuspegitik.

2. Hiriak mugimenduan: mugikortasun berri baten alde. Garraio publiko intermodal baten alde.



- Norberaren ibilgailuaren erabilera murriztearen eta herritarren beharrian pertsonaletarako egokiak diren mugikortasun iraunkorreko zerbitzuen eskaintza integratua hobetzearen alde egitea.
- Hiriko eta hiriarteko garraio-azpiegiturak mugikortasun-modalitate berrietara egokitzea: ibilgailu elektrikoak, partekatuak, bizikletak, etab.
- Hiriko eta hiriarteko irisgarritasun unibertsala sustatzea, bereziki mugikortasun murriztua duten pertsonentzat.
- Herritarren erantzunkidetasuna eta protagonismoa hobetzea mugikortasun seguru, iraunkor eta eraginkorraren kudeaketan.
- Hiri- eta lurralde-plangintza mugikortasun jasangarriaren elementu gidari gisa integratzea.
- Udalerrri txikiak mugikortasun jasangarriaren erronken barruan sartzen direla bermatzea.

- Mugikortasun-beharra murriztera bideratutako politikak ezartzea.

3. **Hiri-plangintzako eredu iraunkor berri bat. Hiri trinkoak.**



- Hiri trinkoaren alde egiten du, birdentsifikatutako eta biziberritutako zentroekin, elkarbizitzarako espazioekin, lurzorua erabilera dibertsifikatuarekin, hiri-berrikuntza eta iraunkortasuna plangintza-irizpide gisa txertatuko dituen, dagoeneko eraikitakoaren erabilera sustatuz.
- Harreman sozial eta ekonomikoen hurbiltasunaren aldeko apustua egitea, lurraldeko bereizketa eta desberdintasun sozialak saihestuz.
- Hiri-plangintzako tresnen kudeaketa, arintasuna eta erabilera hobetzea, emaitzak ezartzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko mekanismo berriak txertatuz.
- Kultura-ondarearen erabilera eta balorizazioa babestea eta sustatzea.
- Lurraldearen errealitatean oinarritutako hirigintza-tresnen erabilera erraztea, behetik gorako ikuspegian.

4. **Hiri berritzaileak eta jakintsuak. Berrikuntza pertsonetatik, pertsonekin eta pertsonentzat.**



- Euskadiko hirietan elkarri lotutako jarduera-ehun berritzaileen eraikuntza sustatzea, aukera berrien sorkuntzarako beharrezko azpiegitura eta politikak aurrera eramanez.
- Sormen-hiriak sustatzea, talentuan eta ikaskuntzan oinarrituak, gizarte- eta ekonomia-berrikuntzako bektore nagusi gisa, pertsona funtsezko erdigune eta helburu izanik.
- Eragile anitzeko parte-hartzea, aliantza publiko-pribatu-sozialak eta hiri-berrikuntzako eta -sormeneko ekimenen garapenean oinarritutako berrikuntza sustatzea.
- Berrikuntza-politikak tokiko errealitateetara eramatea sustatzea.
- Hiriko teknologia bitarteko gisa sartzearen aldeko apustua egitea, eta ez helburu gisa, inplikaturako eragileen parte-hartzea eta konplizitatea kontuan hartuta. Smart Cities hirietatik (hiri adimendunak) Wise Cities hirietara (hiri jakintsuak) aurrera egitea.

5. Hiri dinamikoak eta lehiakorak. Jarduera ekonomikoa duten hiriguneak.



- Ekonomiaren motor nagusia industria lehiakorra, iraunkorra eta berritzailea duen Euskadiren alde egitea.
- Ingurumenaren eta gizartearen aldetik arduratsua den ekonomia- eta enpresa-eredu bat sustatzea, pertsonen premietan oinarrituko dena eta ingurunea errespetatuko duena.
- Hiri-izaerako proiektu ekintzaile berriak, enplegua eta aukerak sortzen dituztenak, abian jartzeko beharrezkoak diren politikak eta azpiegiturak bultzatzea.
- Tokiko eremuan aliantza publiko-pribatuak sortzen laguntzea, bereziki enplegu berriak sortzeko programetan.
- Hiri-garapen ekonomikoa interpretatzea jarduera ekonomikorako lurzoruaren erabilera dibertsifikatuen logikatik abiatuta, hurbileko ekonomia-espazioak sortuz eta lurzoruaren bereizketa saihestuz erabilera eksklusiboetan: merkataritzakoa, industriakoa, bizitegikoa, hirugarren sektorekoa..
- Kalitatezko enplegu egonkorraren sorkuntzaren eta langileen kualifikazioaren aldeko apustua egitea, euskal ekonomiaren lehiakortasunaren bektore nagusi gisa.

6. Hiri iraunkorak eta erresilienteak. Klima-aldaketaen aurkako hiriak.



- Hiri-inguruneko jarduketak iraunkortasunaren ikuspegi integral batetik bideratzea, ingurumen-inpaktua maila guztietan murriztuz eta ingurumen-erronka berrietara egokituz.
- Hiri-bilbean Klima 2050 Estrategiaren esparruan ezarritako helburuak betetzea.
- Ingurumen-politika dimentsionatzea, bektore ekonomiko gisa eta hirietan enplegu, ongizate- eta osasun-aukera berriak sortzeko bektore gisa.
- Inplikaturako eragile guztien (sektore publikoa, pribatua, soziala eta herritarra) erantzunkidetasuna, lankidetzeta eta parte-hartzea bultzatzea.

7. Bizi-kalitatea ardatz duten hiriak. Bizi-kalitatearen aldeko apustua.



- Ongizate pertsonal eta sozialaren kontzeptu integrala sustatzea, herritarrei beren bizi-ziklo osoan lagunduko diena.
- Herritarrak aktibatzea, guztiontzako bizi-ohitura osasungarriak “elkarrekin sortzeko”.
- Zainketekin bateragarriak diren hirien planen ezarpena erraztea, kalteberatasun pertsonaleko egoeran dauden pertsonekin lagunkoiak direnak, euskal hirien bereizgarri gisa bizi-kalitate handia sendotuz.
- Etxeko espazioko esku-hartze estrategikoak arreta soziosanitarioaren sistemaren ardatz gisa kokatzea. Hurbiltasunari lehentasuna ematea arreta-zerbitzuetan eta zuzkidura publikoetan.

8. Aniztasuna eta inklusioa, nortasun-ikur gisa. Zentroko pertsonak eta komunitateak.



- Gizarteratzea pertsonarengan oinarritutako dimentsio anitzeko fenomenotzat hartzea, lurraldeari, bizi-kalitateari, errentei eta herritartasun-eskubideak baliatzeko aukerari eragiten diena.
- Auzoen eta hirien aldeko apustua egitea, arrazoi ekonomiko, sozial edo jatorriagatiko bereizketa espazialaren aurka borrokatuz.
- Hiriak eraldatzea, kolektibo ahulenei arreta berezia eman diezaieten.
- Gizartearen parte-hartzea sustatzea eta hobetzea.
- Aukera berdintasunaren, aniztasunaren kudeaketaren eta gizarteratzearen zeharkako ikuspegiaren alde egitea.
- Zaintzen dituzten hiriak eta komunitateak sustatzea, herritarren bizitza eraikitzeko bektore gisa.
- Bizilekuaren kultura sustatzea, kalitate arkitektonikoa eta bizigarritasuna bizi-kalitatearen eta kohesio sozial eta kulturalaren bektore gisa integratuz.

AZKEN BURUAN

Plana ingurumen-arlo estrategikoarekin bateratzearen eta ingurumen-bektoreak zuzenean integratzearen ondorioz, Plana garapen jasangarriko honako PRINTZIO ESPEZIFIKO hauek arautzen dute:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta artifizializatutako lurzoruen erabilera intentsiboari lehentasuna ematea; eta balio agrologiko handiko lurzoria eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestea.
- b) Hiri-bereizketa eta -sakabanatzea saihestea, baita eragindako mugikortasuna ere, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren eta mugikortasunaren bidez irisgarritasuna erraztuz eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzoruaren erabilera jasangarriagoa eginez eta ahal bezainbeste funtziori eutsi diezaiola.
- d) Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarritzko bizi-sistemen funtzionamendu egokia ziurtatzea, ekosistemak ematen dituzten zerbitzuak babestuz.
- e) Ekosistema naturalak eta ondare geologikoaren eta paisaiaren aniztasuna, berezitasuna eta edertasuna kontserbazio-egoera onean zaintzea.
- f) Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea, ekosistemak lehengoratzeko eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona eta baliabide horren erabilera iraunkorra lortzea.
- h) Baliabide naturalen erabilera iraunkorra sustatzea: ura, energia, lurzoria eta materialak.
- i) Energia aurrezteko, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea eta zarata-maila handien eta argi-kutsaduraren eraginpean dagoen biztanleria murriztea.
- k) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna murrizten laguntzea, arintzeko eta egokitzekeo neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Kutsatutako lurzoruaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta agenteen eta lurzoruaren erabiltzaile izan daitezkeen jarduna indartuz.

2. MUNGIAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLANEAN UDALERRI IRAUNKOR ETA ERRESILIENTE BATEN PROIEKTUA SUSTATZEKO HELBURUAK

Beraz, proposatzen da Mungian hedatu beharreko hirigintza- eta lurralde-politika, Plan Orokorraren proposamen honetan adierazia, aurreko helburu estrategiko eta gidalerro guztiek bideratzea, proposatutako hiri-proiektuaren interes kolektiboa ziurtatzea, eta lurralde-eredu berri batean zehaztea, honako 15 **HELBURU ESTRATEGIKO**en alde eginez:

1. **Mungiak Mungialdeko Eremu Funtzionalaren buru gisa duen eginkizuna indartzea**, ekipamendu berrien hornidura ildo horretan bideratuz, eta **Bilbo Metropolitarrarekiko harremana hobetzearen aldeko apustua egitea**, “**Mungia-Derio Ekobulebarra**” **Eraldaketa Ardatzaren bitartez**, aldiriko trenbide-zerbitzuak barne har ditzakeen garraio kolektiboaren ardatz egituratzaile bat **ezarri**, epe luzera Mungia-Sopela ardatzera hedatu ahalko dena, Mungia-ko garraio kolektiboko sistemen sarbide-puntua Eremu Funtzional osorako trukagailu modal eta zentralitate-eremu gisa planteatuz.
2. **Nekazaritza-lurra babestea**, batez ere Balio Estrategiko Handikoa, nekazaritza- eta basogintza-jardueraren ekoizpen-ingurune nagusi gisa eta gure landa-eremuaren elementu egituratzaile gisa duen eginkizuna murrizten duten hirigintza-, azpiegitura- eta industria-eraginaren eta esku-hartzeen aurrean babesteko mekanismoak arautuz.
3. **Lurzoru urbanizaezinaren erregulazioa, kategoriak, gainjarritako baldintzatzaileak eta erabileren araubidea mugatzeari dagokionez, 2019ko LAGetan ezarritakoetara egokitzea, dagoen landa-habitataren babesa ziurtatzeko**, lurralde- eta ingurumen- kudeaketan funtsezko eginkizuna duelako eta kalteberatasun berezia duelako. Alde batetik, baserriari protagonismo berezia ematen zaio, 1950 baino lehenagoko bizitegi- eraikuntza baita, landa-eremuetako ingurumen- eta paisaia-balioen bermatzaile gisa, nekazaritza-abeltzaintzako, habitateko eta bizi-ingurune ustiapen-funtzioekin. Eta, bestetik, antolamenduan ibilbide irisgarrien sare bat txertatuz, sakabanatutako bizitegi- inguruneen eta zerbitzu- eta ekipamendu-zuzkiduren artean.
4. **Azpiegitura Berdeak antolamenduan duen protagonismoa, honako espazio hauek osatzen dutena: ingurumen-, kultura-, nekazaritza- eta paisaia-balio handiena duten eremuak eta lekuak**; eraldaketak komunitatearentzat ingurumen-arriskuak edo -kostuak dakartzaten lurraldeko eremu kritikoak; eta korridore ekologikoen eta lotura funtzionalen lurralde-sarea, aurreko elementu guztiak erlazionatzen dituen. Azpiegitura Berdea hiri- lurzoru- eta lurzoruratu urbanizagarrietara ere hedatuko da, eta, gutxienez, espazio libreak eta berdegune publiko garrantzitsuenak hartuko ditu barnean, bai eta horiek lotzeko ibilbideak ere.
5. **Lehendik dagoen hiriaren behar bezala funtzionatzea eta balioestea, haren kontserbazioari, kualifikazioari, berrekipamenduari eta, hala badagokio, hiriaren berronartzeari, lurraldea berreraikitzeari eta birziklatzeari erreparatuta**, eta erabilera berriak garatzea dagoeneko urbanizazioak okupatuta dituen espazioetan, lurzoruaren okupazio berrien alternatiba gisa, etxebizitzaren, jardueraren ekonomikoaren eta zuzkiduren eskaerari erantzuteko, edo dauden desorekak konpontzeko

6. **Egungo plangintzak proposatutako eta orain arte garatu ez diren hazkunde berriko eremuak berriz aztertzea**, desklasifikazioaren bidez, dela hirigintza-eraldaketaren egokitasuna justifika dezaketen baldintzak berriz aztertuz. Nolanahi ere, hirigintza-garapen berriak dagoeneko finkatuta dagoen hiriarekin integratuko direla ziurtatuz, beharrezkoa ez den sakabanaketa saihestuz eta erabilerak espezializatzeko beharrezkoak ez diren prozesuak saihestuz.
7. **Babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzak daudela ziurtatzea, behar besteko proportzioan**, hiriko auzo bakoitzean gizarte-kohesioa bermatuko duen lurralde- euskarri egokian, ghettoak sortzea saihestuz.
8. **Dagoen industria-lurzoruari balioa ematea, apustu hauek eginez:**
 - Hutsik dauden industria-pabiloiak birgaitzea eta berrerabiltzea;
 - Lurzoru industrialak dentsifikatzea eta jarduera ekonomikoak eta hiriko bizitza bateragarri egiten dituzten erabileren nahasketa sustatzea.
9. **Mugikortasun iraunkor eta eraginkorra** sustatzea: automobilarekiko mendekotasuna murriztuz; garraiobide alternatiboen aukerak areagotuz; automobilaren mendeko espazioen hedapena saihestuz; **hurbiltasuna hiri-printzipio gisa berreraikiz, hiri- trinkotasuna bilatuz; espazio publikoaren bizikidetasuna berreskuratuz, funtzio- aniztasuna diseinu-argudio gisa txertatuz**; mugikortasun murriztua duten gizarte-taldeen autonomia areagotuz; eta oinezkoen eta hiriko txirrindularien sareen eta hiriarteko sareen jarraitutasuna ziurtatuz.
10. **Irabazizko erabileren eta aurreikusitako zuzkidura eta zerbitzu publikoen arteko egokitasuna eta proportzionaltasuna** bermatzea, ahal den neurrian lehendik dagoen harreman ona hobetuz.
11. **Dotazioen eta ekipamenduen koherentzia, funtzionaltasuna eta irisgarritasuna** bermatzea, bai eta udalerriko edo, hala badagokio, auzoetako zatien arteko banaketa orekatua ere. Hiriko integrazio eta kohesio sozialari ere erreparatzen zaio.
12. **Lurraldean dauden ondare-ondasunak babestea eta balioestea, bai natura-ingurumenekoak**, bai Sollube-Garbolako sakanak, edo udalerrian dauden landaredi autoktonoaren irudikapenak, bai izaera historiko-kulturalakoak, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondarea osatzen dutenak, bai Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroko kultura-intereseko elementuen katalogoak babesteko proposamenen bat dutenak, edo tokiko panoraman interes nabarmena izan dezaketen beste elementu batzuk.
13. **Hiri-metabolismoa ahalik eta baliabide gutxien kontsumituz eta ahalik eta hondakin gutxien sortuz egin ahal izateko proposamenak** bultzatzea, eta zikloak tokian-tokian ixteko joera hartzea, honako hauek nabarmenduta:
 - Uraren kultura berri bat sustatzea, aurrezpenean eta eraginkortasunean eta eskariaren kudeaketa egokian oinarrituta.
 - Energia-kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko proposamenak.
 - Eragin txikiko materialen erabilera sustatzea, haien bizi-ziklo osoan.

- Murrizketa eta berrerabilera sustatzea.
- Emisio kutsatzaileak eta berotegi-gasak minimizatzea.
- Hiri-inguruneko zarata-mailak murriztea.

14. **Klima-aldaketa egokitzeko eta arintzeko neurriak** ezartzea. Aipatzekoak dira, besteak beste:

- Hiriaren inguruko ekosistemak babestea eta zaintzea, berariazko babes-neurriak hartuta.
- Lurzoruaren antropizazioa minimizatzea, herritarren beharretara egokitutako hiri-hazkundera sustatuz.
- Funtzio-aniztasuna, dibertsitatea eta erabilera-nahasketa sustatzea.
- Dentsitatea eta trinkotasuna sustatzea, hiri-sakabanaketa saihestuz.
- Hiri-metabolismoa hirigintza-plangintzaren lehentasunezko gaietako bat bezala integratzea, horrekin, besteak beste, bero-uharte efektua arinduz:
- Mugikortasun-beharrak murriztea, erabileren eta jardueren arteko hurbiltasun-estrategiak eta motorrik gabeko eta garraio publikoko desplazamendu-moduak sustatuz.
- Egungo hiri-sarearen berroneratzea sustatzea, hiri-bizitasuna eta biztanleriaren bizi-kalitatea mantenduz eta hobetuz.
- Eraikuntza irizpide bioklimatikoetara eta bizigarritasunera egokitzea.
- Espazio publikoa hiriaren garapenaren ardatz egituratzaile gisa ezartzea.
- Hiri-berdearen biodibertsitatea eta klima eta karbono-hustubidea arautzeko gaitasuna handitzea.
- Hiriguneko kaleak berdetzea.

15. **Generoaren, adinaren, desgaitasunaren eta kultura-aniztasunaren ikuspegia txertatzea:**

- Pertsonentzako gizarte-prestazioen maila egokia sustatuz mendekotasuna eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat;
- Hiri-espazioetan segurtasuna handituz (argiztapena, altzariak, etab.);
- Espazio publikoko irisgarritasun unibertsala babestuz, arreta berezia eskainiz “zaintzaren mugikortasunari”, eta ziurtatuz beste pertsona batzuk zaintzearekin eta etxea mantentzearekin lotutako bidaiak ahalik eta denbora laburrenean egin ahal izango direla, behar diren ordu-tarteetan eta kostu onargarriarekin.

Hori betetzeko eta garatzeko ekintzen artean, aipatzekoak dira hiri-trinkotasuna indartzea, auto pribatuaren mendekotasuna murriztea eta “distantzia laburreko” hiri bat sortzea, etxebizitzatik gertu ekipamendu eta zerbitzuen bolumen egokia azpimarratuz.

- Bere aldaera normalizatuan, auzoen, industrialdeen, osasun-zentroyen, kultura-zentroyen edo hezkuntza-zentroyen izendapen berrietan, besteak beste, euskarazko toponimo edo terminoen erabilera sustatzea, eta lehendik dauden eta finkatuta dauden garapenetan galdu diren euskarazko toponimia eta terminoak berreskuratzea.
- Euskara udalerriko ondare immaterialean integratzea.
- Hiri-inguruneetan euskara erabiltzeko "arnasgune funtzionalak" garatzea ahalbidetzea.

ETA HORI GUZTIA PARTE-HARTZE PROZESU BATEN INSTRUMENTAZIOA ZIURTATUZ.

Gainditu egin behar da hiri-plangintzaren dimentsioa, gizartea eraldatzeko tresna gisa, jakintzaren eta boterearen, zientziaren eta politikaren arteko identifikazioan oinarritzen zen etapa. Hala ere, gaur egungo gizartearen dinamikaren ezaugarria “kontraesan sistemikoei irtenbide indibidualak bilatzea” da. Indibidualismo gehiegizkoak eta zientziaren hutsezintasunarekiko mesfidantzak hirian erabakiak hartzeari buruzko “legitimitate politikoaren” krisia sortu dute. Inplikaturako eragile guztiekin hitzartzea funtsezkoa da, hain zuzen ere, hiri-politiken definizioari zilegitasuna emateko. Adostasuna bilatuz baino ezin dira hirigintza-arazoak mugatu, formulatu eta ekintza publikoko lehentasunak ezarri. Interes orokorra gatazka sozialak behar bezala kudeatzen dakien prozesu baten bidez aurkitu behar da, eta, horretarako, funtsezkoa da parte-hartze prozesu aktibo eta egiazkoak bideratzea.

Hiriaren izaera sozial eta historikoak plangintza orokorraren izaera zehazten du. Gizarteak une historiko bakoitzean izan dituen arazo nagusiek plangintza-formula desberdinak zehaztu dituzte, tresna berriak, ikuspegi metodologiko berriak eta hiri-forma berriak sortuz. Hala, azken belaunaldiko hirigintza-eztabaidetan ezinbestekotzat jotzen da hiri-eskakizun berrietara egokitzeko gaitasuna izango duen plangintza bat eraikitze beharra, prozesuak emaitza definituko duena, segidako ebaluazioetan eta behin-behineko hipotesietan oinarrituta.

Horretarako, zalantzarik gabe, plangintza orokorraren formulazioa ezaugarritu behar duen gaietako bat da **herritarren eskaerak parte-hartze prozesu eraginkor baten bidez artikulatzea**, hartu beharreko erabakien gidari eta orientabide izango dena. Lege-errekerimendu hutsa gaingitzea da asmoa, lehen mailako irizpide metodologiko bihurtzeko. Era berean, haren denbora-irismena handitu nahi da, Plana indarrean dagoen bitartean, jardueren betearazpena kontrolatzeko eta haiek inspiratu zituzten helburu, irizpide eta oinarriekiko leialtasuna fiskalizatzeko mekanismo bat eratzeko.

Hau da, herritarren parte-hartzeak, egungo plangintzaren gorputz metodologikoaren funtsezko zati gisa, eskariak lehenesten dituen tresna gisa eta hiri-proiektua baliozkotzeko tresna gisa jotzen du, eta horrek legegintza-esparrutik ondorioztatzen dena baino askoz prozesu zabalagoa eta konprometituagoa bideratzea dakar.

Laburbilduz, gizartearen interesa areagotu behar da bere jarduera garatzen den espazio kolektiboa osatzeko, parte-hartze publikoa sustatuz, bai plangintzaren formulazioan, bai egikaritzean, hiriaren kudeaketa eraginkorrean herritarren konplizitatea lortuz. Alde horretatik, informazio publikoko prozesuek eraginkorrak izan behar dute, eta, nolahi ere, dokumentuak sakonki zabaldu behar dira herritarren artean, hizkera, foro egokiak eta komunikazio-moduak erabiliz, hirigintza-eztabaidan gizartearen jarrerak benetan hartzeko eta, beraz, ingurune duin batez gozatzeko duten presio-gaitasuna handitzeko, eta ekologikoki kalitatezkoa den hiri bat eraikitzeke eta kudeatzeko ardura herritarrei emateke.

Beharrezkoa da Mungiako herritarrek hiriaren trantsizio ekologikoa bultzatu behar duen erreferentziazko eredua definitzeko erantzukizuna gauzatzea. Horretarako, hirigintza-arloan eta lurralde-antolamenduan aldaketa kulturala (eko- herritartasuna) bultzatuko duen prestakuntza- prozesu bat eskaini behar zaie herritarrei, inertzia historikoak eraisten dituen (hala nola garraio motorduna sustatzea, familia bakarreko etxebizitza lehenestea, etab.), portaera-jarraibide iraunkorrak garatu ahal izateke.

Aldaketa metodologiko horri esker, hiria gobernatzeko modu berri baterantz jo ahal izango da, non gardentasuna, hiriko eragileen arteko adostasuna, zeharkakotasuna, administrazioekiko lankidetzak eta koordinazioa eta demokrazia parte-hartzailea izango diren erabakiak hartzeko funtsezko ardatzak.



Baietz ein!



MUNGIA
UDALA

TERRITORIO  CIUDAD SLP

TAPER